

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Elkartu aplikazioa erabiltzeko, deskargatu egin behar denez, interneta edukitzea ezinbestekoa da, baita aplikazioa bera erabiltzeko. Lehen esan bezala, honen bitartez ikasleak unibertsitatera ikastera joaterakoan pisu eta pisukideak bilatzeko balio du. Horretarako, galdetegi bat betez zu bezalako norbaitekin egoteko aukera duzu. Gainera, aplikazioaren bitartez behin berarekin hitz egitean, ez bazaizu gustatu beste norbait bilatzeko aukera ematen dizu.

Beraz, aplikazio hau erabiltzeko ez dago adin zehatzik, baina gehien erabiliko dutenak adin tarte zehatz batekoak izango direlakoan gaude. Gure ustez, gehien erabiliko dutenak 17-25 urte bitartekoak izango dira, nahiz eta jende zaharragoak ere erabiltzeko aukera izango duen.



Adin tarte honen arrazoi nagusia unibertsitatea da, batez ere lehen urteetan, izan ere, inor ez ezagutzean aplikazio hau gehien erabiliko dute. Baina, unibertsitatera edozein adinekin bueltatu zaitezkenez, agian 30 urteko norbaitek ere erabil dezake.

Gainera, 18-25 urte bitartekoek teknologiarri buruz asko dakitenez eta beraien egunerokotasunean asko erabiltzen dutenez, ez dute inongo arazorik edukiko eta errazagoa egingo zaie bai pisu eta baita pisukideak bilatzea aplikazio honen bitartez.

ADIN ESANGURATSUA

